

## ERANSKINAK

### 1. eranskina: Coelhoren etorkinen indarguneen taula

Coelhok (2016:49) aipatzen dituen etorkinen indarguneen ezaugarriak biltzen dituen laburpen-taula da honako hau:

<p>Etorri berriek bizi izaten dituzten egoerak eta zailtasunak direla eta, <b>ekimenezko jarrera, adorea eta erabakimena</b> erakusten dute.</p>	<p>Etorkinen jatorrizko herrialde eta kulturetan, <b>komunitatearekiko erantzukizuna eta ikuskera kolektiboaren zentzua</b> indartsuak izaten dira.</p>
<p>Kultura-ingurune batetik beste batera aldatzeak, bere jatorrizko kulturaz kontzienteago izateko aukera ematen die etorkinei, eta <b>kultura-identitatearen zentzu indartsua</b> izaten dute.</p>	<p>Etorkin gehienak oso pertsona <b>moldakorrak</b> izaten dira, haien bizi-estiloa guztiz aldatzeko gai dira helburu bat lortzeko.</p>
<p>Familia asko haien seme-alabek hezkuntza hobea jasotzeko alde egiten dute jatorriko herrialdetik. Hortaz, herrialde berrian eskolatzean, etorkin hauek <b>asko balioesten dituzte irakasleak eta eskolarekin erlazionaturiko faktoreak.</b></p>	<p>Kanadara etorritako etorkinek adibidez, bertakoek baino <b>gogorrago lan</b> egiten dute askotan, eta horrekin batera hizkuntza-eskolak hartzen dituzte maiz.</p>
<p>Familia askoren kasuan, <b>ahaide asko</b> izaten dira eta horrek, laguntza material eta psikologikorako bide garrantzitsua izaten da emigratzen duten kideentzako.</p>	<p><b>Herrialde berriari asko eskertzen</b> diote emandako aukera eta herrialde horretako legeak bertakoek baino zorrotzago betetzen dituzte maiz.</p>

## 2. eranskina: Coelhoren egokitze-faktoreen taula

Hurrengo taulan, Coelhok (2016: 31-42) aipatzen dituen faktoreen laburpena ageri da:


<p><b>Familia banatzea:</b> familiako kide guztiak aldi berean ez emigratzeak, geroago egokitze-prozesua oztopatu dezake bai jadanik egokituta zeudenentzat baita etorri berrientzat ere.</p>
<p><b>Hautua:</b> askoz errazagoa izango da egokitze-prozesua egoera hori hautatu ahal izan duenarentzat; zailagoa da iheslari batentzat, adibidez.</p>
<p><b>Prestaketa eta laguntza:</b> etorkinek familiaren laguntza eta denbora ere izaten dute trantsizio horretan zehar, baina iheslarien kasuan, ordea, askotan ez dute herrialde berrira egokitzeko prestatzeko denborarik, ezta baliabiderik ere.</p>
<p><b>Ingurune-faktoreak:</b> etorkinen bizi-estiloaren aldaketak, eta hortaz, ingurune eta klima berriaren presentziak, larritasunak eta arazoak sorrarazten ditu.</p>
<p><b>Kultura-isolamendua:</b> familia immigranteek, aukera gutxi izaten dituzte kultura berriarekin interakzioak egiteko eta, hortaz, zaila egiten zaie gizartean integratzea.</p>
<p><b>Hizkuntza-gaitasuna:</b> latindar-alfabetoa dagoeneko ezagutzen dutenentzat askoz errazagoa izango da herrialde hartzailearen hizkuntza berria ikastea; gure kasuan, euskara eta gaztelera ikasteko gaitasuna.</p>
<p><b>Aurrez izandako hezkuntza-esperientzia:</b> beren jatorriko herrialdeetan hezkuntzarako aukera egokiak izan dituzten ikasleek, trantsizio leunagoa jasango dute, heziketa prozesu horretan etenak edota aukera eskasak izan dituzten ikasleek baino.</p>
<p><b>Eskolako kultura:</b> eskolako kultura, eskolako “bizimodua” da, eta hortaz, bertako ikasleen, irakasleen eta gurasoen arteko harremanak, egiten diren ekitaldiak, haurren ikasbideak edota curriculumaren edukiak, arazo iturri izan daiteke familia etorkin berrientzat, haien herrialdeko ezaugarriekin talka egiten baitute.</p>
<p><b>Identitatea:</b> etorkin askorentzat, emigrazioak identitate berri bat onartzea dakar; izan ere, kultura-gutxiengo bateko kide izateak, haien motibazioa eta autoestimua kaltetu dezake kasu askotan.</p>
<p><b>Estatus sozioekonomikoa:</b> etorkin profesional askok, nahiz eta prestakuntza handia izan, arazoak izaten dituzte herrialde berrian lana aurkitzeko, bai hizkuntza aldetik baita erakunde batzuek haien titulazioak ez onartzeagatik; hortaz, ondo prestatutako etorkinak gaizki ordaindutako lanak burutu behar izaten dituzte.</p>
<p><b>Botere-lerratzak</b> familian: familia etorkin gehienek, ezin dezakete aurrera egin soldata bakarrarekin eta hortaz, egoera berriari egokitu eta bi gurasoek lanean jarri behar izaten dira. Momentu horretan, gerta daiteke gizon-emakumearen rol tradizionalak apurtzea, emakumeek etxeko eginkizunak egiteko denbora gutxiago izaten; egoera horrek, talka kulturala sor dezakete, gizonezkoan frustrazioa eraginez bereziki.</p>
<p><b>Kultura-talka etxearen eta eskolaren artean:</b> haur etorkinen etxeko balioek talka egiten dute eskolakoekin; izan ere, hainbat ezaugarri desberdin nabarmentzen dira etorkinaren eta eskolaren artean: janzkera estiloa, sinesmenak, balioak, sexu-heziketa</p>

...

**Gurasoen parte-hartzea eskolan:** gurasoek haien seme-alaben hezkuntzan era aktiboan parte-hartzeak, eragin zuzena du ikasleen arrakasta akademikoan; baina hainbat herrialdeen ohiturei jarraituz, gurasoak ez dira batere inplikatzeko prozesu horretan eta horrek, arazoak sortzen ditu bai ikasleekin baita irakasleekin ere

(Coelho, 2016: 31-42).


**3. eranskina: EAEko biztanle etorkinen jatorriaren grafikoa**



Iturria: EInen datuak oinarri hartuta egin da.

1. Grafikoa. Hamar jatorri-herrialde nagusien bilakaera EAEn, 2007-2016 (kopuru absolutuak)  
 Iturria: Immigrazioaren Euskal Behatokia (2016)

**4. eranskina: EAEko ikasle etorkinen jatorriaren grafikoa**



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 2005.

2. Grafikoa. Ikasle etorkinak eta jatorria. Bost hizkuntza nagusiak edo ugarietak

Iturria: Felix Etxeberria (2006b)

**5. eranskina: Kontrol-zerrendak beteta**

1. KONTROL- ZERRENDA: ESKOLA KULTURANIZTUNEAN HASTEAN

**Harrera eta orientazioa**

Bai	Oraindik ez	e/e	
X			Bada programa planifikatu bat ikasleak eta gurasoak hartzeko eta orientatzeko.
X			Harreraz eta orientazioaz arduratzen den talde bat dago.
X			Harrera-taldeko kide batek ongietorri egiten dio familiari leku pribatu eta eroso batean.
		X	Orientazio-materialak eskuragarri daude komunitateko hizkuntzetan.
		X	Badira interpreteak eta itzultzaileak.
		X	Seinale eta ohar eleaniztunek ongietorri egiten diete iritsi berriei eta nora joan argitzen diete.
		X	Eskolako lantaldeak babesa agertzen du lehen hizkuntzei eustearen alde.
	X		Gurasoek informazioa jasotzen dute helduentzako gaztelera eta euskara programei buruz.
		X	Diru-funts berezi bat dago beharrezko diren ikasleei laguntzeko; esate baterako, eskolako ekipamendua erosteko eta irteerak egiteko.
X			Ikasleei beren hezkuntza- oinarriaren ebaluazio egokia egiten zaie.
		X	Hasieran ikaslea ikasmila jakin batean jartzeko erabakia berrikusi egiten da aldiro, eta/edo ikasle edo gurasoek eskatzen dutenean.

**Ebaluazioa eta ikasmila jakin batean jartzea**

Bai	Oraindik ez	e/e	
X			Eskolak prozedura planifikatua du eskolara iristen den ikasle bakoitza ebaluatzeko.
		X	Prozedura bat dago ikasleak lehen hizkuntzan duen gaitasun-maila

			ebaluatzeko.
		X	Ebaluazio akademikoa ikaslearen lehen hizkuntzan egiten da, ustez ezagunak dituen atazak eta materialak erabiliz.
X			Hizkuntzen gaitasunaren ebaluazioan entzumena, mintzamina, irakurmena eta idazmena sartzen dira.
		X	Euskara gaitasuna euskara ikasten ari diren ikasleei dagozkien irizpideak erabiliz ebaluatzen da.
X			Ebaluazio-karpeta bat dago ikasle bakoitzeko, eskolara iritsi zen egunetik.
X			Ebaluazio guztietan hartzen dira kontuan ikasleak ikasteko izan dituen aukerak.
		X	Ikaslearen jatorrizko kultura eta hezkuntza ezagutzen dituen hezitzaile elebidun bati aholkua eskatuta ebaluatzen dira behar bereziak izan ditzaketen ikasleak.
X			Behar adinako laguntza dago eskolara joateko aukera gutxi izan duten ikasleentzat.
X			Ikasle bakoitzaren aurrerabidea aldian-aldian berrikusten da.

### Bigarren hizkuntzaz jabetzeko laguntza

Bai	Oraindik ez	e/e	
X			Ikasle guztiek jasotzen dute bigarren hizkuntzaz jabetzeko laguntza-programa planifikatu bat.
X			Bigarren hizkuntzako ikasle guztiak, hasiberriak barne, hezkuntza-programa lagungarri batean daude sartuta, aldi berean segi dezaten ibilbide akademikoan aurrera egiten eta irakaskuntzako hizkuntza ikasten.
		X	Ikasleen lehen hizkuntzak aktibo linguistiko, akademiko eta kulturaltzat hartzen dira.
X			Irakasle guztiek hartzen dituzte kontuan bigarren hizkuntzako ikasleen beharrak eskola planifikatzean eta baliabideak aukeratzean.
		X	Irakasle guztiek dute eskola klaseak planifikatzen eta curriculum diseinatzen lagunduko dien gaztelera eta euskarazko profesional trebatu bat.

**Bai = egokia denean.**

**Oraindik ez = erabiltzen da, baina arlo honek arreta berezia behar du oraindik ere, beharbada.**

**e/e = ez da erabiltzen, edo oraingoz ez dago eskura.**

2. KONTROL- ZERRENDA: ESKOLA INGURUNE INKLUSIBOA

**Ingurune fisiko eta sozial inklusiboa**

Bai	Oraindik ez	e/e	
		X	Ikusgai jarritako materialak kontu handiz hautatzen dira kultura eta arraza talde desberdinen irudi errealista eta positiboak emateko.
		X	Bada prozesu bat ikasliburuak eta beste baliabide batzuk ebaluatzeko.
		X	Baliabideak hautatzeko gidalerroetan, kultura-aniztasunarekin lotutako irizpideak sartzen dira.
		X	Ikasle eta gurasoek parte hartzen dute baliabide- materialak hautatzen.
		X	Seinaleak, oharrak eta ikastetxean ikusgai jarritako materialak hainbat hizkuntzatan daude, eta kultura- ikuspegi pluralak islatzen dituzte.
		X	Ikasleen etxeko hizkuntzak erabiltzen dira eskolaren iragarpenetan, gurasoen bilera eta elkarrizketetan, kultura- ekitaldi eta emanaldietan, eta abarretan.
X			Ikasleei esaten zaie nahieran aukeratu dezatela zer hizkuntza erabili eskolan jendarteko harremanetan.
		X	Curriculumetik kanpoko hainbat jarduera daude.
		X	Ikasle eta gurasoei galdetzen zaie ea zein jarduera duten nahiago eta zein interesatzen zaien curriculumetik kanpoko jardueren artetik.
		X	Eskolan bada ikasle eta irakasleen talde antirrazista aktibo bat.
		X	Ekitaldi bereziak planifikatzen dira eskolako kultura guztiak ahalik eta modurik inklusiboenean hartzeko.
		X	Trataera berdina ematen zaie eskolako kultura guztien ospakizun garrantzitsuei eta egun bereziei.



**Laguntza-zerbitzuak**

Bai	Oraindik ez	e/e	
X			Kontu handiz ikuskatzen da ikasle bakoitzaren aurrerapena.
X			Ikasle batek zailtasunak dituela ikusten denean, bada interbentzio- eta laguntza- programa planifikatu bat.
X			Eskolak ikasle talde jakin batzuen aurrerabidea ikuskatzen du (hizkuntza arazoak dituzten ikasle taldeak, adibidez).
X			Eskolak dagokiona egiten du ikasle talde jakin batek arazo sozial edo akademikoak izan ditzakeela ohartzen denean.
X			Eskolak ikasleen behar akademiko eta sozialei dagozkien aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen dizkie norbanako eta taldeei.
	X		Kulturarteko aholkularitza eraginkor jarduteko behar diren jakintza eta trebetasunak dituzte ardura hori duten aholkulari eta irakasleek.
		X	Bada gatazka-bitartekotzarako prozedura bat ikasleek eskolan edo eskolatik kanpo jazarpen etnokulturala jasaten dutenean.
		X	Eskolak eta komunitateko talde eta elkarteek elkarri laguntzeko harremanak dituzte.
X			Badago ikaskideen tutoretza- programa bat antolatuta, trebakuntzaz eta ikuskaritzaz arduratzen dena.
		X	Tutore elebidunak trebatzen dira hezkuntza- maila eskasa dutelarik iritsitako ikasleekin lan egiteko.
X			Badira ikasteko talde antolatuak eskolan.
	X		Irakasleek kultura- aniztasuna tratatzeko gaiarekin loturiko formazioa jaso dute.
		X	Irakasle eta ikasleek arrazakeriaren kontrako trebakuntza parte hartzeko aukera dute.

**Gurasoen parte-hartzea**

Bai	Oraindik ez	e/e	
X			Eskolak sormenez eta malgutasunez jokatzeko gurasoak eskolara gonbidatzeko moduak bilatzeko.

X			Gurasoekiko komunikazio idatzia haiek ulertzen duten hizkuntza batean egiten da.
		X	Gurasoekiko bilerak egiten dira hizkuntza- eta kultura-talde jakin batzuekin.
		X	Guraso-sareak osatzen dira komunikazio- eta laguntza-bide gisa.
X			Gurasoen eta irakaslearen arteko komunikazioan bi norabideetan trukutzen dira informazioa eta aholkuak.
X			Ikasleen eskolatzeari eta jokaerari, etxerako lanei, gurasoen parte-hartzeari eta abarri buruzko itzaropenak negoziatuak, errealistak eta esplizituak dira.
		X	Eskolak gaztelera eta euskarazko programa bat du helduentzat.
	X		Gurasoei gonbita egiten zaie eskolari modu egokiz laguntzeko.
		X	Komunitateko talde antolatuek eginkizun bat dute eskolan.
		X	Komunitateko taldeek eskola erabiltzen dute bilerak eta ekitaldi bereziak egiteko.
X			Gurasoek aholku praktiko baliagarriak jasotzen dituzte haurrei etxean laguntzeko bidez.

**Bai = egokia denean.**

**Oraindik ez = erabiltzen da, baina arlo honek arreta berezia behar du oraindik ere, beharbada.**

**e/e = ez da erabiltzen, edo oraingo ez dago eskura.**

### 3. KONTROL- ZERRENDA: IKASGELAKO KOMUNITATE INKLUSIBOA

Bai	Oraindik ez	e/e	
X			Etorri berriei harrera egiteko errutinak martxan daude.
X			Ikasleek eta irakasleak elkarren izenak esan ditzakete.
X			Etorri berriak eta gaztelera eta euskara-ikasle hasiberriak lehen hizkuntza bera duten ikaskideen ondoan esertzen dira lehen asteetan.
X			Irakasleak zuzeneko harremana du ikasle berriekin, eskola-ordu bakoitzean behin gutxienez.

X			Irakaslea elkarriketez baliatzen da ikasleei elkar ezagutzen laguntzeko.
X			Irakasleak ikastaldea aztertzen du ikasleen jatorriaren, beharren eta interesen berri jakiteko.
	X		Ikasgelan ikusgai jartzen dena inklusiboa da.
X			Ikasleek parte hartzen dute ikasgelako materialak sortzen ikusgai jartzeko (muralak, proiektuetako materialak ...)
	X		Irakasleak ezagunak ditu ikasleen hizkuntzetako zenbait esamolde.
X			Ikasgelako errutinak espero izatekoak eta esplizituak dira.
X			Ikasleak txandakatu egiten dira ikasgelako errutinetan eta arduetan.
X			Irakasleak taldeko harremanak ikuskatzen ditu, eta ikasleei laguntzen die talde-lana kudeatzen eta erantzukizunak banatzen.

**Bai = egokia denean.**

**Oraindik ez = irakasleak landu egin behar luke arlo hau**

**e/e = ez da erabiltzen, edo oraingoz ez dago eskura.**

#### 4. KONTROL- ZERRENTA: EBALUAZIOA ESKOLA KULTURANIZTUNETAN

##### **Ezagutza eta trebetasun akademikoen ebaluazioa**

Bai	Oraindik ez	e/e	
X			Irakasleek ebaluazio-ataza alternatiboak erabiltzen dituzte ikasleei zer ikasi duten frogatzen laguntzeko.
X			Irakasleek jardunean oinarritutako ebaluazio-ereduak erabiltzen dituzte ariketak eta <i>feedbacka</i> eskaintzeko azken ebaluazioaren aurretik.
		X	Ikasleek aukera dute zer ikasi duten lehen hizkuntzan erakusteko.
X			Irakasleek edukiari jartzen diote arreta, ez hizkuntzari, ikasleen ezagutza ebaluatzean.
X			Irakasleek gutxitu egiten dituzte hizkuntza-oztopoak ebaluazioan (ariketak moldatuz ...)
X			Ikasleek elkarrekin lan egiteko aukera dute ariketa gisako probetan.

X			Ikasleek hiztegiak dituzte eskura proba eta azterketetan.
X			Irakasleek ikasprozesua ere ebaluatzen dute, emaitzaz gainera.

**Hizkuntza- eta alfabetatze-mailaren ebaluazioa**

Bai	Oraindik ez	e/e	
		X	Irakasleek portfolio bat dute ikasle bakoitzarentzat. Bertan, euskara eta gaztelerazko laginak ez ezik, ikaslearen lehen hizkuntzazkoak ere badaude.
		X	Irakasleek ikasleen lehen hizkuntzako irakurketa- esperientziei buruzko informazioa biltzen dute, euskara edota gaztelerazkoari buruzkoaz gainera.
		X	Alfabetatzea eskala handian ebaluatzean, bigarren hizkuntzaren jabeakuntzako lehen etapetan dauden ikasleek aukera dute beren hizkuntzan zer gaitasun duten erakusteko.

**Bai = egokia denean.**

**Oraindik ez = erabiltzen da, baina arlo honek arreta berezia behar du oraindik ere, beharbada.**

**e/e = ez da erabiltzen, edo oraingoz ez dago eskura.**